



Xoxokako eskola: mende bat bete bizipen

Ehun urteko bidea bete du Xoxokako eskolak. Hala, ekitaldia egin zuten asteburuan: bertan izan ziren ikasle ohiak. / 4-5

AIURRI

Irulegi-Garmendia sendiaren historia

1936ko Gerrak tragediaz bete zuen andoaindarrez eta urnietarrez osaturiko familia. Dani Fanok komikira eraman du haien gertaera latza / 6-9

Lotuneen arteko alderaketa, ikusgai

A15 eta N1 errepideen arteko lotune berria eraikitzen hasi aurretik, eskatu duen egitasmoen alderaketa-lana erakutsiko die herritarrei Andoaingo Udalak. / 10



Aingura eskegi du Burdina taldeak, Leitzaran kalean, iraganeko lanbideak gogoan hartuz / 11



Ostiralean hasi eta igandera bitarte, Andoaingo Karrika auzoa jaietan murgilduko da / 14



Argazki-inpresio teknikan zaharrenetarikoa den zianotipia ikastaroa antolatu dute / 14



Esbart Rocasagna dantza-taldearen gonbidapenez, Herrialde Katalanetan izan dira Egape Dantza Taldeko kideak. EGAPE DT

“Dantzen trukeaz gain, harremanak sortu ditugu”

Harremana estutu du Egape Dantza Taldeak Gelidako Esbart Rocasagna dantza-taldearekin: iaz izan ziren Urnietan katalanak. Bada, joan den ekainaren amaieran egin diete bueltan bisita etxeko dantzariak

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Gelidan (Herrialde Katalanak) izan ziren ekainaren amaiera aldean Egape Dantza Taldeko kideak, Esbart Rocasagna dantza-taldearen gonbidapenez. Hala, iaz bisitatu zuten katalanek Urnieta, San Miel jaien ondoren. Ez da Egape Dantza Taldeak horrelako trukea egiten duen lehen aldia, ezta azkena ere, ikusita zeinen aberasgarria izan den esperientzia Kimetz Cabanillas, Naroa Exposito eta gainerako herriko dantzarien-tzat.

Asteburu pasa izan zineten ekainaren amaieran Gelidan, Egape Dantza Taldearekin. Dantzari gisa, horrelako truke batean parte hartzen duzuen lehen aldia al da?

Naroa Exposito: Lehen aldia izan da horrelako esperientzia bat probatzen. Haiek etorri zirenean, ez nintzen askorik egon beraiekin. Baina, asteburu honetan, denbora gehiago pasa dugu elkarrekin eta oso ondo joan da. **Kimetz Cabanillas:** Niretzat ere horrelako zerbait egiten dudana lehen aldia izan da. Gure taldearen kasuan, Urnietara etorri

zirenean gerturatu ginen haiengana. Baina, hara joatean, harreman handiagoa egin dugu.

N.E.: Elkartzen ginen bigarren aldia zen, gainera, eta errazagoa egin zaigu.

Zer moduzko harrera jaso zuten duzue dantzek Gelidan egindako ikuskizunean?

N.E.: Dantza tradizionalen eta garaikideen ikuskizuna egin genuen. Lehen dantzatik hasita, animo pila jaso genuen, harrituta gelditu ziren gurekin, ez baitzuten halako dantzarik espero. Larunbatean, gaueko



Kimetz Cabanillas eta Naroa Exposito. AIURRI



Gelidan egindako saioaren irudia. EGAPE DT

22:00etan egin genuen ikuskizuna, temperatura altuengatik. Oholtzak bero-bero segitzen zuen gauean ere.

K.C.: Talde bakoitzak hiruzpalau pieza egin genituen, eta elkarrekin ere egin genuen baten bat. Normalean, Urnieta inguruko herrietan izaten gara. Ohituta daude horrelakoetan gure dantzetara. Baina, Herrialde Katalanetan, ez dute horrenbeste espero eta animoz jaso gintuen jendeak, oso gustuko izan zuten.

Zuetaz zein Gelidakoez gain, Tarragonako talde bat ere izan zen topaketan. Zein iritzi duzue bertako dantza-estioaz?

N.E.: Bertako dantza tradizionalen emanaldia egin zuten bi taldeek.

K.C.: Gelidakoez esan ziguten beraien bien arteko dantzak antzekoak zirela. Gurekin konparatuta, beharbada, motelagoak eta lasaiagoak ziren. Desberdinak ziren, interesgarriak. Oso ondo dago beste toki batzuetako dantzak ezagutzea.

Behin hara joanda, dantza egiteaz gainera, bestelako ekintzarik egin al zenuten?

N.E.: Igerilekura joan ginen egun guztietan, baita gaztelu bat bisitatzera ere.

K.C.: Festa, bere horretan, ez zegoen, baina gau giroan ere izan ginen beraiekin, pixka bat.

Zer ekarri duzue bueltan Euskal Herrira esperientzia honetatik?

N.E.: Oso harreman ona egin genuen bertakoekin.

K.C.: Lehen esan dudana bezala, ohituta gaude taldeko dantzariak inguruko herrietara joaten. Baina, horrelako esperientzietan, dantzen trukeaz gain, harremanak sortu ditugu. Oso ideia ona iruditzen zait.

Gogoa piztu al dizue esperientziak etorkizunean antzeko trukeetan parte hartzeko?

N.E.: Sei ordu eta erdi egin genituen autobusean, hara joateko, baina berdin du, oso ondo pasa genuen eta. Horregatik, aurrera begira, prest gaude horrelako beste bat egiteko!

Euskal Sagardoa Jatorri Deitura du Altunak

Urnietako sagardotegiak lehen aldiz ekoitzi du Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako sagardoa. Aurreko asteazkenean sektoreko kideen, lagunen, bizilagunen eta udal ordezkarien aurrean egin zuen aurkezpen-ekitaldia

Erredakzioa URNIETA

Aski ezaguna da Altuna Urnietan eta, geroztik eta gehiago, Beterri-Buruntzan eta kanpoan. Berrikuntza prozesuan murgilduta dabil Xabier Altuna eta aurreko asteazkenean ate irekiera jardunaldia egin zuten: baserria, sagastiak eta uztar hobeto eza-gutzeko aukera paregabea izan zen. Altuna Sagardotegiak sagastian urte luzetan egindako lana biribildu du eta lehen aldiz ekoitzi du Euskal Sagardoa Jatorri Deitura. Sagardotegian eta sagastietan azalpenak eman ostean, zizka-mizka antolatuz zuen bertaratu zirenentzat.



Juan Zuriarrain enologoa, Xabier Altuna eta Unai Agirre. AIURRI



Mikel Irigoras andoaindarra. AIURRI



Unai Agirre eta Xabier Altuna, sagardotegiko lursailean. AIURRI



Eider Mendoza, Ahalhun Nagusia. EAJ GIPUZKOA

Alkateen soka-dantza, Ipuscoak ekimenaren barruan

Duela 1000 urteko "Ipuscua" eta egungo "Gipuzkoa" hitzak oinarri hartuta, ekimen-sorta antolatzen ari dira

Erredakzioa ANDOAIN

Tolosako dultzaineroek jotako Gipuzkoako ereserkiak ireki zuen ekitaldia. Ondoren, Gipuzkoako erakunde buruen soka-dantza egin zuten, diputatu nagusiak ireki eta Tolosako alkateak itxiz. Bertan izan ziren Andoni Alvarez (Andoain) eta Jorge Segurado (Urnietan) alkateak. Argia-Ikerfolk taldeko dantzariak lagun, Eider Mendoza diputatu nagusiak ireki zuen soka-dantza, eta *Alpargata* edo *Esku-aldatzeko doinua* dantzatu zuten herri-ordezkarietako batzuk. Tolosako alkateak, Batzar

Nagusietako presidenteak eta diputatu nagusiak egindako hitzen ondoren, berriz, Irradaka dantza eskaini dute emakumezko dantzariak. Amaitzeko, Et Incarnatus orkestra eta abesbatzako kideen eskutik, Benito Lertxundiren *Oi Lur* eta Xabier Leteren *Izarren hautsa* interpretatu zituzten. Ekitaldia *Agur jaunak* abestuz itxi zuten. Gipuzkoako milurtekoaren oinarrian Erdi Aroko esku izkribu bat dago. Hori dela eta, "Ipuskoa. Izanetik izenera 1025-2025" leloa goiburu hartuta, jarduerak antolatzen ari dira Gipuzkoan.

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeztar ebeztar harpidetza-sistema.
Andoain urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzabiz plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartearena.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietan).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikiak: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zera Multimedia.

EKOIZLEA:

ALJATUAK:

TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

BABESLEAK:

ZIURTAGIRIA:



Ezker-eskuin: Marisa Berrueta, Pepita Campos eskolak izan zuen azken irakaslearen alaba, Izaskun Miner ikasle ohia, Jorge Segurado alkatea eta Joseba Ubillos Xoxoka-Goiburu auzoko elkartearen lehendakaria. AIURRI

Omenaldia, ehun urteko bideari

1925eko uztailaren 2an inauguratu zen Xoxokako eskola. Bada, omenaldia egin zioten, joan den asteburuan: bertan izan ziren, eskolatik igarotako ikasleak, baita Marisa Berrueta Campos ere, Pepita Campos eskolak eduki zuen azken irakaslearen alaba

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ehun urte bete berritan, gogoan izan zuten, pasa den igandean, Xoxokako eskolaren ibilbidea, Urnietako Udalak Xoxoka auzoko elkartearekin batera antolatutako ekitaldian. Goizeko 11:00etan egin zuten hitzordua, mendialdeko auzoan, dantzaz, musikaz eta bertsoz osatuko omenaldiarekin.

Auzoko musikarien laguntzaz, dantzarien Agurrarekin eman zioten hasiera mendeurreneko ospakizunari. Hala, behin herrikideak zein udal ordezkariak eskolaren atarian bilduta, Mikel

Artola Euskara zinegotziak hartu zuen hitza, omenaldiaren testuinguru historikoari erreparatzeko asmoz. Begirada atzera botata, akorduan izan zituen eskolak igarotako “garai zailak”, besteak beste, gerratea, frankismoa... “Hala ere, baserritar askok eta askok hautua egin zuten baserriko lana, bizia atzean utzi gabe, hemen eskolak hartzera etortzeko. Beraz, bada meritua”.

Goizez, arratsaldez eta gauez ematen ziren klaseak bertan eta, zinegotziaren hitzetan, ia 50 urte egon zen martxan eskola, lau



Testuinguruan ipini zuen omenaldia Mikel Artola Euskara zinegotziak. AIURRI

irakaslerekin: Angela Arrue (1925-1936), Matilde Aranzaolatrouque (1936-1938), Petronila Esnal (1938-1943) eta Pepita Campos (1943-1973). Bada, azken hori bertan hiru hamarkadaz izan ondoren, erretiroa hartuta itxi zen eskola: “Xoxokako edo Tsusakako eskola honek bizia badu oraindik ere eta gehienbat auzo elkarteari esker da hori. Beraz, jarrai dezala, beste urte askotan, eta izen horren pean, bizirik”.

Bestalde, eraikina bera ez ezik, bertatik igarotako ikasleei zein gurasoei ere egin zien aipamena Artolak: “Altzibarko harrobira joan, harria eta hondarra hartu, pagadi batera joan, enborrak moztu, hona ekarri eta hutsetik eskola sortu zuten. Beraz, gaurko omenaldi txikia gure inguruko baserritar eta Goiburutar askori”. Bide horretan, jendaurrera gerturatze-ko gonbita luzatu zien Marisa Berrueta Camposi, eskolak izan zuen azken irakaslearen alabari, Izaskun Miner ikasle ohiari, Joseba Ubillos auzo elkarte-ko lehendakariari eta Jorge Segurado alkateari, ehun urteko omenaldiaren plaka inauguratzeko, lore-eskaintza egitearekin batera.

Errimak, eskola zaharrari

Ekitaldiarekin jarraitzeko, orain gutxi auzunean lur hartu duen Unai Gaztelumendi Arandia bertsolariak, bertsoak jarri zizkion eskolari. Ezinbestean, eskola eta auzoa hizpide izan zituen:

*Ai Xoxokako eskola zaharra guri begira jarria.
Zein iskinatan izango dezu lehendabiziko harria?
garai bakoitzak eskatu gisan serbitu dezu herria.
Ia ehun urte gainean eta oraindik ere berria.*

*Gerra aurretik eraiki eta ostean, berriz, ze urte garai gogorak izan zirela kontatu izan digute.
Hemengo jolas, bihurrikeri, liburu eta apunte...
ai Xoxokako hormek hizketan jakingo baldin balute!*

*Hemen ez dio kaleak hartzen landa giroari gaina hain ahul daukagun hizkuntzak ere hemen estalpe bikaina.
Alkate jauna, zuk eskumenik ez dezu izango baina gaur egun hemen bada umea berriz zabaltzeko aina.*



Ikasle ohi ugari gerturatu zen ekitaldira. AIURRI



Iraganeko oroitzapenak gogora ekartzeko aukera izan zuten. AIURRI



Unai Gaztelumendik hiru bertso bota zizkion eskolari. AIURRI

Baietz beste ehun
Zizka-mizken aurretik, elkarteko lehendakaria den Joseba Ubillosek egin zuen hitzartzea. Azaldu zuenez, jada, aterpe gisa ezagutu zuen berak Xoxokako eskola: “Ia gehienok egin dugu

noizbait lo eraikin honetan. Denok gogoratuko gara nola zeuden hiru pisuko literak; hori ez da toki askotan ikusten”. Dena dela, ondo baino hobeto ezagutzen du Ubillosek, nagusiagoak diren auzokideen ahotik,

xoxokarrek, auzolanean, eskola eraikitzeko erakutsi zuten borondatea eta ahalegina: “Bazegoen umeak eskolara eraman behar zirenaren pentsaera. Alegia, ez zuten garai hartako agintariek ekarri, auzoak berak, bere esfortzuaren eraiki zuen”.

Hari horri tiraka, frankismo garaia eskola horretan harropatu zituzten auzokideen anekdotak partekatu zituen, jarraian, herrikideekin: “Euskara hutsean hazitako umeek, hona etorri eta erdaraz ikastera behartu zituzten. Baserritar euskaldunak izateagatik ere gutxietsiak izan ziren askotan. Hizkuntza arrotz batekin behartuta, nahikoa egin zutela esango nuke nik”. Hori horrela, ehun urteren ondoren, euskararen arnagune izaten jarraitzen duela gogorarazi zuen elkarteko lehendakariak, baita auzoko haurren topaleku ere: “Jolasten ikasiz eta gure ingurua zainduz gure haurrak duten toki ederra da”. Mende bat bete berri badu ere, anbizioz begiratzen diote auzoan, Ubillosek hitzetan, etorkizunari: “Jarrai dezagun, umeentzako ekintzak antolatzen eta, nola ez, euskaraz bizitzen, Xoxokako eskolak bere esentzia inoiz gal ez dezan”.

**MEDEURRENEKO
EKITALDIAREN BIDEO
ETA ARGAZKI-SORTA
IKUSGAI DAUDE
AIURRI.EUS GUNEAN**

Auzoko musikariak eta dantzariak



Xoxokako musikariak, eskola atarian. AIURRI

Musikaz girotutako hitzordua. Auzoko trikitilariak musikatu zuten, Kris Solanoren laguntzaz, igande goizeko zita, Xoxokoako eskolaren atarian: Laiene Etxezarreta, Izaro Sorron, Jare Belaunzaran, eta Ion Sorron.



Agurra dantzatu aurretik. AIURRI

Dantza, omenaldiari ekiteko. Agurra dantzatu zieten eskolari zein bertatik igarotako ikasle ohiei auzuneko hiru auzotarrek: Ane Elgarresta, Izaro Sorron eta Laiene Etxezarreta.



Urnieta
udala



Koldo Astrain, komikia eskuetan duela, Intza taberna-jatetxearen aurrean, Esterlines kalean. AIURRI

Komiki-liburura eramán dute Irulegi-Garmendia sendiaren tragedia

Paulina Garmendia urnietarrak eta Juan Antonio Irulegi andoaindarrak Donostian Intza taberna ireki zuten, 1933an. Familiak handik gutxira bizi izan zuen tragedia latza jartzen du agerian berriki argitaratu duten komiki batek

Xabier Lasa DONOSTIA

Egun, familiaren ondorengoek, Koldo Astrain eta Asier Astrain aita-semeek kudeatzen dute Intza taberna, eta Dani Fano komikilari donostiarrarekin elkarlanean, "Intza... ez da munduan beste bat" izenburuko komiki ikusgarria kaleratu dute berriki.

Ilustrazio dotoreen eskutik, familia baten historia tragikoa kontatzen du argitalpenak: bikote gazte bati taberna-negozioa

irekitzeak eragiten dien ilusioa, estatu-kolpe militarra, kolpe zaleen Donostia hiriaren hartze militarra, Irulegiren atxiloketa eta desagerraraztea, Garmendia alargunak 40 urtetako diktadurapean jasaten duen etengabeko jazarpen mingarria...

Diktadurak beldurrez ezarritako isiltasunaren eta ondorengo demokraziak dekretuz ezarritako krimenekiko inpunitatearen ostean, azken urtetan zorionez zabaldu den gizarte-

mugimendu kritikoaren barnean, ugariak dira kaleratu diren liburak, dokumentalak, filmak... biktimen egia kontatzera eta horientzat justizia eta aitormena eskatzera animatu direnak. Nolanahi ere, urriak dira bide hori jorratu duten komikiak.

Bada, modu grafikoan betetzera dator hutsune hori "Intza... ez da munduan beste bat" komikia. Gertakizunen errealismo krudela eta komikigintzaren magia bikain uztartzen dituen



Juan Antonio Irulegi Ulanga.



Paulina Garmendia Mujika.

argitalpena da, eta, eta hamabi orrialde besterik ez ditu behar garai historiko bat kontatzeko eta bertan milaka herritarrek jasan zuten injustizia kontatzeko; eta hori dena, familia baten gorabeherekin pertsonalizatuta.

Paulina eta Juan Antonio bikotea

Paulina Garmendia Mujika Urnietan, Beltranenea baserrian (Ergoien auzoa) jaio zen, 1904an. Canuta ahizpa eta biak, Garmendia Mujika abizenekoak ziren. Beren ama hil ondoren, aita alarguna, bigarren aldiz ezkondu zen, Juana Aranbururekin, eta horiek beste sei seme-alaba eduki zituzten: Migel, Juan Angel, Patxi, Martxiel, Dolox eta Alberta.

Juan Antonio Irulegi Ulanga Andoainen, Aranaztegi baserrian (Leizotz auzoa) jaio zen, 1903an. Primo, Patrizia, Fortunato, Gaspar, Joxe Kruz, Joxepa, Patxi, Hilaria eta Karmen izan ziren bere anai-arrebak.

Paulinak eta Juan Antoniok Intza taberna-jatetxea 1933an, San Sebastian egunaren bezperan ireki zuten, Alde Zaharreko Esterlines kalean. Sukaldearen ardura plater goxoak prestatzeko esku-bikaina zeukan Garmendiaren bizkar geratu zen bitartean, Irulegik bezeroekin zuzeneko hartu-emanari heldu zion.

Egundoko ospea hartu zuen Intzak oso denbora gutxian, izan ere, Donostiako euskalgintzako eta euskal kultur gintzako topaleku bilakatu baitzen Intza. Irulegiren ideologia jeltzale eta euskaltzaleak ere markatu zuen bezero-mota pitin bat.

Urte horietan, bi haur izan zituzten, Jesus Mari (1931) eta Miren Itziar (1935).

1936ko uztaileko estatu-kolpe zaleek Donostia irailaren 13an okupatu zuten indarrez, eta hurrengo aste eta hilabeteetan ia 400 herritar erail eta desagerrarazi zituzten. Horietako bat izan zen Irulegi. Geroztik, ez da jakin ahal izan nora eraman zuten hiltzera, ezta non lurperatu zuten ere.

Handik hiru urte eskasera, 1939an, Jesus Mari semea hil egin zen. Andoaingo Oroitzuz elkartek 2006an argitaratu zuen liburuan ("Ahozko historia: oroimenean lokartutako historia") Miren Itziarrek anaiaren heriotza goiztiarraren zergatia argitu zuen: "(...) Gizajoa 9 urtez hil zen, pena sakon batek jota; bihotza zuen ahula, eta aitarena ezin izan zuen gaingiditu".

Urte batzuen buruan, Garmendia berriro ezkondu zen, Ignacio Solanarekin, eta ume bat eduki zuten, Koro. Alaba gaztetatik hasi zen Intzan lanean, amari laguntzen, eta bera izan zen familia-negozioari eutsi ziona. Luis Astrainekin ezkondu zen, eta Koldo semea eduki zuten. Egun, hirugarren eta laugarren belau-naldikoak diren Koldoren eta bere seme Asierren esku dago Intzaren eguneroko martxa.

Jazarpenak etenik ez

Atsekabeak jota zegoen Garmendiari baldintza iraingarria ezarri zioten frankistek: Intza taberna berriro ireki nahi bazuen, "Intza" kendu eta "España" jarri beharko zion sarrerako errotuluari. Hori gutxi ez eta, familiarena zen taberna gaineko lau solairuetan Circulo Carlista ezarri zuten. Hamarkadetan, familiak ordaindu behar izan zituen haien gastu guztiak (ura, argia, Udal-zergak...).

Komikiak ilustratzen dituen pasadizo mingarri gehiago kon-



Angel (1), Imanol (2) eta Paulo (4) Garmendia anaiak, Luis Astrainekin (3), Intza tabernako mostradorean. INTZA TABERNA

tatu dizkigu Koldo Astrainek. “Etxean isun mordoa daukagu gordeta Donostiako udalak amonari jarri zizkionak 1953an, jangelako mahai-zapiak terrazan zabaltzen zituelako”.

Bestalde, aipatzekoa da ere bada, urte haietan, Garmendia-
ren bigarren senarra, Ignacio Solana, Martutenen kartzelaldia maiz sufritu zuenetakoa izan zela. “Franco Donostiara uda pasatzera etortzen zen bakoitzean antifrankistekin egiten zuten sarekadan harrapatzen zuten gure aitona. Bezperan tabernan kontsumitzera etorri ziren polizia berberak atxilotzen zuten biharamunean”.

Koldo Astrainek aitortzen du “España” izena derrigor eraman beharrak asko markatu zuela Intza tabernaren joana urte gogor haietan: “Izenak atzera botata, batzuk ez ziren sartzen tabernara. Baina, aldi berean, Alde Zaharrean baziren betiko auzotarrak, Intzan Errepublikara garaiak sortu izan zen euskal giroa gogoan zutenak eta jakitun zirenak familiak ondoren bizi izandako zorigaitzarekin, eta horiek bezero izaten segi zuten”. Antzeko jokatu zuten Gipuzkoako herri askotako herritarrek ez zuten galdu Intzara hurbiltzeko ohitura, estropadetan, Aste Nagusian, San Sebastian egunean... Guztiek ere, Intza bezala ezagutzen jarraitu zuten taberna, eta, beren etxeetan, hurrengo belaunaldiak, bertaratze-ko joerari eutsi zioten. “Alde Zaharrean, nortasun propioa duen topagune erreferentziala izaten segitzen du batzuentzat oraindik; geratzen den bakantakoa da, frankiziaz-eta dena

beren esku hartzen ari diren garaietan”.

Txanponaren beste alde ilunagoa, ere ez du ahaztu nahi izan Astrainek. “Frankismoko urteetan, bezeroen artean, asko ziren polizia eta erregimeneko kideak, ‘España’ etiketa horrek erakarrita”.

Franco hil eta laster, Koldoren aita Luisek taberna-sarreran zintzilikatuta zegoen “España” kartela harrikada batez nola txikitzen duen jasotzen da komikian, besteak beste. “Ez da asmazioa pasadizo hori, ondo islatzen du nolako amorruez erreakzionatu zuen aitak, egoera politikoak utzi ahal izan zionean”.

Aldi berean, Koldoren gurasoek izena berriro aldatzeko trami-teari ekin zioten. Garmendiak, ordurako, sukalde-lanak utzita zeuzkan; depresio batean murgilduta bizi zen, eta ez zuen ondo hartu erabaki hori. Nonbait, iraganeko heriotzek, isunek, mehatxuek... Guztiz iltzatuta zeuzkan oroimenean, eta barruak mugitu zitzaizkion.

Komikia, familia-historiaren argigarri

Intzan beti-beti bezero izan diren familia horietako kide da Dani Fano komikilaria, eta bere ideia izan zen komikia gauzatzea. Astrainek dioenez, oso eskertuta dago familia Fanorekin: “Lehenbizi, Ikastolen Elkartearen Xabiroi komiki-aldizkariaren argitaratu zuen komikia. Ilustrazio dotoreak eta argigarriak egin zituen, eta orduan, komikia aparteko argitalpen batean argitaratzea proposatu genion. Izan ere, iruditzen zitzaigun



Begoña eta Maddi Garmendia, Beltraneneko ahizpak Xoxokan, Intzan igarotako haurtzarora eta gaztarora oroitzen. AIURRI

familiaren historia modu ikusgarri batean ezagutzera emateaz batera, lagundu zezakeela oraindik ere zenbaiten oroimenean bizirik segitzen duen ‘España’-ren estigma hori uxatzen. Oniritzia eman zigun Fanok, eta geroztik oso gustura gaude emaitzarekin. Jende ugari etorri zaigu komiki ale baten bila tabernara, eta horietako batzuk aitortu digute oraintxe jakin dutela benetako eta inposatutako izenen jatorriaz”.

Isiltasuna nagusi, urtetan

Paulinaren bi alaba, Miren Itziar Irulegi Garmendia zena eta Koro Solana Garmendia, izan dira informazio-iturri bakanak familiaren iraganeko gorabeheren berri jakin nahi izatera. Amaren ezpainetatik apenas entzun ahal izan zuten kontakizunik bere gertukoek, tabutzat baitzeuzkan sufrimenduari lotutako gertakizunak. Nolanahi ere, Miren Itziarrek lehen aipatutako Andoingo Oroitzuz elkartearen liburuan adierazi zuenez, gogor egin zion ahaztura horri: “Nik kontzientzia izan dudaretik jakin nahi izan dut nor izan zen aita, zer gertatu zen aitarekin. Dakizkidan xehetasun murrizak amak kontatuak dira, aldartea egokia ikusten nuenean esanarazten nizkionak, bai bainekien ez zizkidala aitortu nahi izaten. Ni entzuteko gose izaten bainintzen. Ondo dakit garai haietan arris-

kutsua zela lurperatutako historiari jakin nahi izatea; arazotan sartzeko biderik errazena zelako! Amari gorputzean sartu zioten izu espantagarriak, zera esanarazten zion: ‘Zaude isilik, bizilagunek ere salatuko zaituzte-eta’. Amaren instintuak hitz egiten zuen bere ahotan...”.

Beltraneneko garmendiatarren babesa

Paulina Garmendiaren bi ilobekin, Beltranenea baserriko Begoña eta Maddirekin egon gara, Intzako izeba ezagutzeko parada eduki baitzuten.


Biek berretsi dute Martxiel beren aitaren edo osaba-izeben ahotatik oso gutxi jakin izan dutela familiaren gorabeheraz. Begoñaren hitzetan, “etxean ez ziren aipatzen kontu haiek, gerrarekin-eta zerikusia zeukatenak. Genekien gauza bakarra zen Paulinaren senarra fusilatu egin zutela, besterik ez. Izatekotan, ere aitari entzun izan genion behin edo behin, zein tristea izan zen 36ko gerra anaien artean; izan ere, bere bi anai, Patxi ELAkoa zena eta Migel sozialista, biak Euskal Ejiertzoarekin joan ziren, eta bien bitartean, bera frankistek indarrez erreklutatu egin zuten. Gauzak horrela, anaiak elkarri tiroka aritu behar ote zuten, ezjakintasun horrekin ibili omen ziren”.

Intza kasik bigarren etxetzat jo izan zuten, haurtzaroan eta

gaztaroan, batik bat, Maddik gogorarazi duenez. “Aitak Intzara, bere arreberen tabernara, umetatik eraman gintuen, udetan batez ere. Beharbada, ni izan nintzen ordu gehiena igaro zituena tabernan laguntzaile bezala. 12 urtetik 15 urte bitarte, garbiketan, zerbitzatzen... aritu nintzen, lan eta lan besterik egiten ez zuen Paulina izebaren ondoan. Argazkian ageri diren Angel, Imanol eta Paulo anaiak ere tarteka joaten ziren laguntzera, baina egun seinatueta bakarrik. Paulina izeba, beti sukaldean, lan eta lan, bestetan ez genuen ikusten”.

Bi ahizpak geroztik joan dira lotzen familia-historiaren hari solteak, eta eginkizun horretan, lagungarri egin zaie komikian agertzen diren zenbait datu, gezurra badirudi ere.

“Gaztea nintzela ez nuen ulertzen oporrak izanik zergatik joan bera izaten nuen hara, lanera. Haserretu egiten nintzen aitarekin; normala errebelatzea, adin hori edukita! Jenio bizikoa zen izeba, eta harekin ere sestrak eduki ohi nituen. Geroztik ulertu izan ditugu orduan bizitutakoak. Alegia, Garmendia familiak Paulinari babesa eskaintzeko modua izaten zela gu hara laguntzera bidaltzea, eta ulergarria ere bazela Paulina berak halako izaera gogorra edukitzea, sufritu behar izan zituenak kontuan hartuz gero”.



"Intza... ez da munduan beste bat" komikiaren azala. DANI FANO

Bi bide, komikia eskuratzeko

Aiurriko kideek, Aiurrira idatzita

Aiurri astekariak komikiaren sorta bat eskuratu du eta harpidedunen artean banatzeko asmoa du. Zer egin behar da eskuratzeko? urnieta@aiurri.eus e-postara eskaera idatzita. Behin hori eginda, helarazteko modua adostuko dugu.

Intza tabernan bertan

Donostiako Esterlines kalean dagoen tabernan eskuragarri dago, hala aitortu digu egungo tabernaren kudeatzaileak. Aleak agortu arte banatzeko asmoa dute.



"Intza... ez da munduan beste bat" komikia eskuratu nahi?

Idatzi eskaera urnieta@aiurri.eus e-postara

Harpidedun izatearen abantailak

www.aiurri.eus





Egunotan banatuko duten eskuorrian bi alternatiben argazki-muntaiak ageri dira. ANDOAINGO UDALA

Bi aukera, aztergai

“Informa zaitez eta partehartu gizarteratze-prozesuan” lerroburua daraman eskuorria banatzen ari da Andoaingo Udala, egunotan, etxeko buzoi guztietara. Bi alternatiben onurak eta eragozpenak xehetu ditu, argazki-muntaia banarekin osatuta

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Bi egitasmoak Sestra enpresak egin ditu, Andoaingo Udalaren enkarguz, 2024ko Espainiako aurrekontuetatik iritsi ziren 476.000 euroak baliatuta.

Lehen alternatiba

Saihesbidearen egitasmo eraberritua da, inguruko udalerrietan bere garaian egin zenaren antzekoa. Astigarraga, Hernani, Urnieta... A15a udalerrietatik urrundu zuten inbertsio handia

egin eta gero. Alternatiba hori jasota dago lehen proposamenen. Eskuorrian ageri denez, helburuak honako hauek lirateke: indarrean dagoen Plan Orokorrak bere erredakzioan jasotzen duen N-1eko trafikoa herrigunetik kanpo debideratzeko asmoa errealitate bilakatzea, udalerrian barrena igarotzen den trafiko astunaren zati handi bat urruntzea, biztanleriarengan airearen kalitatea errotik hobetzea eta espazio publiko seguruagoak

eta lasaiagoak egitea. Zeintzu dira eragozpenak? Nagusiki, bi: kostu ekonomikoa eta obren konplexutasuna. Ondorioa honako hitz hauekin jasota dago: “1. alternatibak epe luzerako irtenbide integrala eskaintzen du, Andoaingo bizi-kalitatea eta garapena hobetuz, baina inbertsio handiagoa eskatzen du”.

Bigarren alternatiba

N1 eta A15 errepideen lotunea Tolosako noranzkoan eraberri-

tuko lukete, laxoaren forma duen A15aren luzapena eraikiz. Izan ere, Buruntza eta Bazkardo artean, auto ilara ugari sortzen dira enbutu efektuaren ondorioz. Soka luze horiek saihesteko eta trafikoa hobeto bideratzeko, A15aren ibilbidea luzatu nahi dute bihurgune zabal eta irekia eraikiz. Teknikoki, egitasmo horren kostua txikiagoa litzateke eta gauzatzeko denbora gutxiago beharko litzateke. Aldundiak berak aitortu du hori litzatekeela eremu horretan egingo litzatekeen lehen egitasmo nagusia. Gerorako utziko lituzke Bazkardo eta Mimendin egin litezkeen jarduera berriak. Eragozpenen artean hiru dira eskuorrian jasotakoak: errepideak hesi-efektua eragiten jarraituko du udalerrian, kutsadura akustikoa ez da desagertuko eta Udalak indarrean duen Plan Orokorra bideraezin bilakatuko luke. Ondorioa honako hitz hauekin jasota dago: “2. alternatiba merkeagoa eta azkarragoa da, baina ez ditu gaur egun dauden sako-neko arazo guztiak konpontzen”.

Errespetatu Andoain plataformaren helegitea

Foru Aldundiak aurkeztu duen lazoaren erredakzioarako lizitazioaren aurka

Erredakzioa ANDOAIN

“Jakinarazi nahi dizuegu Gipuzkoako Foru Aldundiak N1 eta A15 lotunerako aukeztu duen lazoaren erredakzioarako lizitazioaren errekurtsioa aukeztuko dugula Errespetatu Andoain plataformako kideok. Errekurtsioa individualki aurkeztu behar da”. Hasiera hori du, egunotan, hainbat herrikideren eskuko telefonoetara iritsitako mezuak. Uztailaren 7an eta 8an argibideak emateko prest ziren Kontzejupean plataformako hainbat kide. Asatezken arratsaldean, berriz, aurkeztutako helegitea azaltzeko agerraldia deitu zuten.

Sinatzaile bakoitzak bi eskaera luzatu ditu bere sinadurarekin. Lehena, lazoa eraikitzeke aldi baterako enpresa elkarteari (ABEE, gaztelaniaz UTE) egindako esleipena baliogabetzea, “eta prozedura atzera eramatea gardentasunaren, inpartzialtasunaren eta herritarren parte-hartzearen berme egokiekin”. Bigarrena, “Andoainen, N-1 eta A-15 errepideen arteko lotura-zatiaren saihesbidearen konponbidearen alde egitea”.

Helegitea aurkezteko hiru arazoi nagusi

Bost orrialdeko agirian, helegitea aurkezteko hainbat arrazoi argudiatu dituzte plataformako kideek. Batetik, haien ikuspegitik, lazoa ez da arazoaren osotasunari irtenbidea ematen dion aukera. Bestetik, Aldundiak ez dio herritarrari parte hartzeko aukerarik eman. Eta, hirugarrenik, Sestra enpresaren partaidetza auzian jartzen dute. Izan ere, ingenieritza enpresak Andoaingo Udalaren alderaketa lantzen aritu da eta, euren arabera, erredakzioa esleitzeko pleguak dio “kontratazio-prozedura honen prestaketan parte hartzeak, zuzenean edo zeharka, baztertzeke arrazoiak” dela.



Aingurekin eta sutegiarekin lotutako ikuskizunean parte hartu zuten eragile guztiak bilduta. Ikuskizuna bideoz ikusgai aiurri.eus-en. AIURRI

Aingurak eta sutegia gogoan izan ditu Burdinak

Antzina, Andoainen itsas-ainguren sutegiak izan zuen garrantzia nabarmendu zuten Leitzaran ibaiaren bi bazterretan egin zuten ikuskizunarekin, joan den larunbat gauean

Xabier Lasa ANDOAIN

Osagai ugari eduki ditu emana: burdingileen langintza, eszenifikazioa, bertsoak, dantza, txalaparta (burdin-hotsa)..., Burdina elkarteak antolatuta.

Malou Henriksen eta Ane Jalonen adarra-jotze saioarekin ekin zioten ikuskizunari. Ekitaldiaren lehen parteh horretan,

Juan Godoy, Jon Urtasun eta Tolo Ollo txalapartariak gogor astindu zuten burdinezko txa-

ESKURA JARRI DUTE ARGITARATU DUTEN AZALPENEZ BETETAKO LIBURUXKA

laparta, iraganeko sutegiaren hotsa irudikatu nahian, eta ondoan eduki zituzten Urko Ormazabal, Asier Garcia, Lier Flores eta Beñat Amilibia gazteak, burdingileen paperean sartuta.

Burdin-hotsen erritmoari jarraiki, Maite Sagasetak dantza saio sentzuala egin zuen, ondoren.

Ikuskizunaren lehen zati hori amaiturik, Ion Belokik bi bertso abestu zituen. Honatz, bi bertsoak (doinua: Itsasoari begira):

Gure ingurura begiratuta egin behar da galdera zer egongo zen ibai ondoan urte batzuek atzera. Burdinak beti erantzun bat du eta dator aurkeztera aingura egile andoaindarrak behar bezala omentzera, txoko honekin momentu oro eurez oroituero gera.

Oria eta Leitzaran dira paisai honen katebegi, gure herriko kale ezagun denez Aingurasutegi. Izenak berak dioen gisan itsas ainguren lantegi

errekan zehar itsasoraino zeramaten herriz-herri aingura erabat bota aurretik, memoria berrituz segi.

Ekitaldiari jaki eta edari gozagarriekin eman nahi izan zieten bukaera, eta horretarako, Alberto Delaflor, Juan Carlos Couto eta Roberto Couto Zumea-tarra elkarteko sukaldariak txingarretan erretako hirugiharrek eta txorizoak dastatzeko aukera eduki zuten bertaratu zirenek.

Liburuxka, azalpen argigarriekin

Ekitaldian hitza hartu zuten Joxe Ramon Berrondo eta Xabier Cabezon Burdina elkarteko kideek eta ainguraren industriaren gaineko azalpenak eman zituzten. Saiatu arren, artxiboetan Andoaingo ainguren sutegiari lotutako agiri idatzirik ez dutela topatu ziurtatu zuten. Nolanahi ere, belaunaldiz belaunaldi herrian zabaldu izan den memoriari heldu diote. Rikardo Arregik ere Andoaingo historia laburra idatzi zuenean 1970ean, halaxe egin zuen.

Berrondok eta Cabezonek zehaztaperen ugari eman zituzten: non kokatzen zen ainguren sutegi zaharra eta non ontziralekua, aingurak nola garraiatzen zituzten Leitzaran eta Oria ibaie-tan behera, zer nolako ezaugarriak zeuzkaten orduko sutegiek, nola funtzionatzen zuten...

Ainguren sutegiaren gaineko idatzizko azalpenez eta ilustrazio ikusgarriez betetako liburuxka jakingarria banatu zuten ekitaldira hurbildu ziren herri-tarren artean. Liburuxka hori, eskura daiteke Burdinak berak Extremadura kalean kudeatzen duen Gordelekuan. Elkarteko kideak goizez aritzen dira bere zereginetan bertan, batik bat.



Sutegiaren langintza eta bere kokapena irudikatzen dituen argazki-muntaia. AIURRI



Gabirondo, txapela jantzi berritan. AIURRI

Gipuzkoako Sega Sail Txapelketako garaile

Julen Gabirondo urnietarra gailendu zen Zizurkilgo Arizmendi baserriko belazean jokatu zen Gipuzkoako Sega Sail txapelketan. Ibilbide oparoa egiten ari da, beraz, segan: iaz Amasako Arratzain baserriko sailean irabazitakoa berretsi zuen

Ainhoa Gil ZIZURKIL

Julen Gabirondo urnietarra izan da Gipuzkoako Sega Sail Txapelketako garailea, Mikel Lizartza eta Jon Larrañagaren aurretik sailkatuta. Gabirondok garaipen garbia lortu zuen Zizurkilgo Arizmendi baserriko belazean. Hasiera nahiko parekatua izan zen Julen Gabirondo eta Mikel Lizartzaren artean. Hirugarren sailetik aurrera, ordea, abantaila nabarmena hartu zuen urnietarrak eta, azkenik, hark eraman zuen garaipena.

Lehiaren aurretik segalari beteranoen erakustaldia egin zuten, eta bat baino gehiago ahoa bete hortz geratu zen Iruntxiberri eta enparauak lanean ikusita. Eguerdiko 12:00etarako beroketa lanak egiten ari ziren Jose Antonio Matxain, Juan Manuel Erasun eta Leon Albeniz 'Iruntxiberri'. Ikuskizun ederra eskaini zuten hirurek. Hogeita bost metro karratuko saila ebaki zuen 87 urteko Leon

Albenizek. 50 metrokoan aritu zen Matxain eta 100 metroko saila ebaki zuen Juan Manuel Erasunek. Txalo eta animo artean aritu ziren hirurak, segan aritzeko abilezia ez dutela ahaztu erakutsi zuten bitartean. Sega sail txapelketan, berriz,

mila metroko saila ebakitzea zen helburu, ahalik eta azkarren eta txukunen eginez. Bigarren urtez jarraian, Aiztondo aldean egindako txapelketetan, Julen Gabirondo urnietarrak parekorik ez duela erakutsi du. Ibilbide oparoa osatzen ari da.



Julen Gabirondo, laguntzaileak gertu dituela. AIURRI

Sega sail txapelketako irabazlea



Podiuma: Julen Gabirondo, Mikel Lizartza eta Jon Larrañaga. AIURRI

Urnietarra, garaile Lehen minutuetan lehia estua izan zen Julen Gabirondo eta Mikel Lizartzaren artean, baina proba aurrera joan ahala, urnietarrak alde atera zuen. Garaipen argia lortu zuen aurreko igandean.



Julen Gabirondo, Zizurkilgo Arizmendi baserrian. AIURRI

Erakustaldia emanda Irabazteko aukerak bazituela argi zegoen, azken urteotako onenentsuena baita urnietarra. Baina proba aurreko nagusitasun hori lehian erakutsi behar da eta, behin lanean hasita, erakustaldi berria eman zuen urnietarrak.



Iruntxiberri eta Erasun kirolari beteranoak. AIURRI

Beteranoen agerpena Segaren ibilbidea jarraitu dutenentzat izen handikoak dira Jose Antonio Matxain, Juan Manuel Erasun eta Leon Albeniz 'Iruntxiberri'. Zaletuen gozamenerako, bakoitzak bere indarren arabera erakustaldia eman zuen.



B16 mailako txapelketa jokatzeko ari da Euskalduna taldea. Ubitarten Coutras Frantziako taldearen aurka aritu ziren. AIURRI

Nazioarteko taldeen aurka jokatzeko aukera

Donosti Cup txapelketa Andoainera eta Urnietara iritsi da. Bertako zelaietan jokatzeko aukera dute, gainera, Euskaldunako eta Urnietako hainbat taldek. Asteartean 16 urtekoen mailako partida bana jokatu zen Ubitarten eta Urnietako futbol-zelaian

Erredakzioa ANDOAIN
Euskal Herriko eta atzerriko taldeentzako lehiaketa uztailaren 8an, asteartean, abiatu zen. Dozenaka partiden artean, hamasei urtekoen mailako partida bana jokatu zen Ubitarten eta Urnietako futbol-zelaian. Iluntzean egin zuten irekiera-ekitaldia.

15.000 lagunek baino gehiagok bete zuten Reale Arena, aurkezpenean. Bistakoa da uda hasierako hitzordua dela gazte futbolari askorentzat.

Aste osoko txapelketa izango da Donosti Cup, eta finalak larunbatean eta igandean jokatuko dira.

Ezaguna denez, Donosti Cup nazioarteko txapelketa da eta jokalarientzat hori da pizgarria, nazioarteko taldeen aurka jokatzeko aukera baitute. Antolatzailerik emandako datuen arabera, Gipuzkoan 300 talde osatu dituzte Donosti Cup txapelketan aritzeko.



Urnietako, G16 taldean, 4-0 gailendu zitzaion Deutsche Schole euskal taldeari. AIURRI



Taldeakide baten anaia gogoan hartuz jokatu zuten andoaindarrek. AIURRI



2-0 irabazi zuten Ubitarten, etxekoek aurrean. AIURRI



Garaipen argia lortu zuen Urnietak. AIURRI



Jokariak, prestatzailearen esanak entzuten. AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

KALE ANTZERKIA

ANDOAIN Trapu zaharra
"La ultima, y nos vamos",
konpainiaren kale-antzerkia.
Uztailak 18, ostirala.
19:30, Zumea plaza.

ANDOAIN La Pez
"Plaza", konpainiaren antzezlan.
Uztailak 19, larunbata.
20:00, Goikoplaza.

ANDOAIN Markeliñe
"Andante", maskaradun antzerki
ibiltaria.
Uztailak 20, igandea.
12:30, Zumea kalea-Plaza Morea.



Zianotipia. ©MADDI.TRUTXU

ANDOAIN Urdina agerian. Zianotipia tailerra

Maddi Trutxuelo diseinatzaile grafiko eta argazkilariaren eskutik,
XIX. mendean sortutako argazki-inpresio teknikan zaharretariko batean
murgilduko dira: zianotipian. Prezioa: 5 euro. Plaza mugatuak. Izen-ematea:
ldatzi trentxiki.ae@gmail.com helbidera eta bidali zure datu pertsonalak.
Tailerrera argazkia uztailaren 16a baino lehen bidali behar da.
Uztailak 19, larunbata. 11:00-14:00 eta 16:30-18:30, Urigain Etxea.

ZERBITZUAK

URNIETA Udal pilotalekua
Uztailean hasita, udan udal
pilotalekua zabalik izango du.
Erabilerak librekoa izango da, beraz.
Urnietako pilotalekua.
Ordutegia: 09:00-21:00.

ANDOAIN Bisitarien Etxea
Leitzaran Bisitarien Etxea zabalik
egongo da udan.
Bisitarien Etxea, Otieta.
Ordutegia: 09:30-18:30.

ODOL-EMAILEAK

URNIETA Gaztelekua
Odola emateko hitzordua Urnietan.
Uztailak 14, astelehena.
16:30-20:30.

KONTZERTUA

ANDOAIN Kiliki
Disco berriaren aurkezpena.
Uztailak 31, osteguna.
20:00, Etxeberrieta.

KARRIKAKO JAIK



Ostiral honetan hasiko dira jaiak. AIURRI

UZTAILAK 11 OSTIRALA

19:00 Txupinazoa.
20:30 Bokata afaria.
22:30 Kontzertua: Barrena.

UZTAILAK 12 LARUNBATA

11:30 Puzgarriak eta apar festa.
14:00 Makarroiak eta bingoa.
16:30 Puzgarriak.
18:30 Dantza tailerra.

22:00 Kontzertua: Versos Perdidos.
00:30 DJ Donoso.

UZTAILAK 13 IGANDEA

11:30 Meza Sorabillan.
12:00 Toka txapelketa.
12:30 Sagardo dastaketa.
16:00 Karrikako mus txapelketa.
19:00 Got Talent Karrika. Segidan,
play-back saioa.
21:00 DJ Donoso.
23:30 Amaierako traka.



Haur aldizkariaren udako zenbakia!

Harpidedun izatearen abantailak



sukia

JAI-ALAI SUMMER SEASON

Kings Edition vol.3

GALARRETA

JAI ALAI




UZTAILAK 10 OSTEGUNA

16:30ean

LEHEN PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)
GOIKOETXEA V - ESKUDERO VS
GURRUTXAGA - AIESTARAN VI

2. PARTIDA (SUMMER SEASON)
BARRENETXEA IV - EZKURRA II VS
SEGUROLA - LARRAÑAGA

3. PARTIDA (ORIAMENDI ERREMONTE TXAPELKETA)
SUSPERREGI - ZUBIRI VS
AIESTARAN VII - MARTIRENA



UDA ZINEMA KALEAN

Dragoi-jalea
Uztailak 10, osteguna. Etxeberrieta plaza. Euskaraz. 19:00.
Sinopsia: Garai ilunak dira Txina inperialen. Mendietako gotorleku urrun batean, neskak batek azken dragoiari ihes egiten laguntzen dio, eta harekin bat egiten du abentura zirraragarri batean: altxor preziatuena berreskuratzea.

Kung-Fu panda 4
Uztailak 17, osteguna. Goikoplaza. Gaztelaniaz. 19:00.
Sinopsia: Po, Bakearen Haraneko Maisu Espirituala bihurtuko dena, Dragoi Gerlari berriaren oinordekoa bilatzen ari da, eta bitartean aurkari berri bati egin beharko dio aurre: "Kameleoa".



FUTBOL ESKOLA
2017, 2016, 2015, 2014 URTEETAN JAIOTAKO
NESKA ETA MUTILENTZAT

EMAN IZENA!

APUNTATE CON EL MÓVIL

EPEA:
UZTAILAK 1-15

@sdeuskalduna www.sdeuskalduna.eus @SDEuskalduna

GUTUNA

BURUNTZALDEKO TRANSMARIBIBOLLOAK BETERRI-BURUNTZA

Erasoen aurrean, erantzun kolektiboa

Azken asteetan gertatzen ari diren eraso LGTBIAQ+ fobo eta arrazisten harira, Buruntzaldeko transmaribibolloon erantzuna Azken ostiral honetan, Andoainen etxebizitza bateko paretan "Fuck LGTB" zioen gorroto pintada agertu da. Buruntzaldeko transmaribibollook ekintza hau eraso gisa ulertzen dugu, kolektiboarekiko eraso gisa, hain zuzen. Eta, bide honetan, erantzun kolektibo baten beharra ikusi dugu.

Diskurtso LGTBIAQ+ foboez gain, pintada arrazistak ere ageri dira gure kaleetan. Ostiralean bertan, Lasarte-Orian mezu sionista, islamofobo, kolonialista eta arrazistaz beteriko esaldiekin zikindu zuten Palestinar herriari elkartasuna adierazteko murala. Gainera, LGTBIAQ+ borrokaren

izenean, diskurtso arrazistak zabaldu dituzte muralean, eta ekintza hori guztiz gaitzesten dugu. Arrazakeriak ez du tokirik gurean.

Ezin aipatu gabe utzi, Hernanin zein Andoainen festetan gertatutako eraso eta diskurtso arrazistak. Ez dira kasu isolatuak, diskurtso eta eraso LGTBIAQ+ fobo eta arrazistak ematen ari dira gure herrietan eta ezin ditugu onartu. Hau guztia, noski, eskualdetik harago gertatzen ari da. Faxismoa eta eskuin muturraren gorakadarekin batera, gorroto diskurtsoak gailentzen ari baitira gorputz eta bizitza zehatz batzuren aurka.

Buruntzaldeko transmaribibollook argi utzi nahi dugu ekintza horiek guztiak eraso gisa ulertzen ditugula eta, ez Buruntzaldean ez inon, ez



Andoainen agertu den gorroto pintada. PODEMOS / FACEBOOK

ditugula inolaz onartuko, ezta pasatzen utziko ere.

Antolatuta gaude eta erasoei erantzun kolektiboz erantzungo diegu.

Gora autodefentsa transmaribibollo eta antiarrazista!

Euskal Herriko txapelketan

Ekaineko azken asteburuan Euskal Herriko Infantil txapelketa antolatu zuten Tolosan. Bertan izan ziren Buruntzaldea IKT taldeko Amaiur Iparragirre, Ane Meyer, Itxaso Iparragirre eta Nora Miguelez. Taldea pozarren dago: "Harro gaude neskek egindako denboradiarekin; hobekuntza nabarmena egin dute urte osoan eta bilakaera sekulakoa da".



BURUNTZALDEA IKT


andoaINDARRA
euskaraz

MERKATU TXIKIA

ALOKAIRUA
Iruñeko pisu batean bi gela libre daude alokatzeko. UPNaren inguruan. Bi unibertsitateko ikasle bila gabilta, neskak eta euskaldunak. Bestela, ez molestatu, arren. Interesatuak deitu **665 719 827** telefonora.

HEZIKETA
Zure ttikiarekin daukazu harremana hobetzeko aholkuak emailaz jaso nahi? (dohainik)
www.angiru.es/angiru-tribua

**Mendira,
hondartzara,
festara...**



**Uda honetan ere
zurekin eramango gaituzu**



Okm:

*batzen gaituen
distantzia*

